EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA

BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta–ordaina: 8/98

Internet
www.euskadi.net

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1
Legezko Gordailua: VI – 286 – 78 – VITORIA–GASTEIZ

Administración: c/ Donostia–San Sebastián, 1
Depósito Legal: VI – 286 – 78 – VITORIA–GASTEIZ

# Bestelako Xedapenak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**5810**

EBAZPENA, 2008ko irailaren 23koa, Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearena. Honen bidez, Lanbide Heziketako ikasgela eta tailerretako Praktika Onen sariak ematen zaizkie irakasleei 2008ko maiatzaren 6ko 78/2008 Dekretuaren babesean (EHAA, 2008ko maiatzaren 16koa), 2008an ikasleengan ondo egiteari eta etengabeko hobekuntzari lotutako jarrera eta baloreak bultzatzearren eta multimedia sistemak erabiltzearen bidez irakaskuntza-praktika sustatzearren.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko maiatzaren 6ko 78/2008 Dekretuak Lanbide Heziketako gela eta tailerretan Praktika Onei emandako Sariak arautzen ditu, eta deialdiaren 7. artikuluko 6. idatz-zatian ezartzen denez, Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeak ebatzi eta EHAAn argitaratuko dira.

Ondorioz, hau

EBATZI DUT:

1.– Lanbide Heziketako ikasgela eta tailerretako Praktika Onen sariak ematea 2008ko edizioan, maiatzaren 6ko 78/2008 Dekretuaren 7l. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.– Lanbide Heziketako ikasgela eta tailerretako Praktika Onen sariak irabazi dituzten hautagaien zerrenda argitaratzea hautatutako modalitateka, Dekretuko 1.2 artikuluaren arabera. I. eranskinean zerrendatzen dira sarituak.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**5810**

RESOLUCIÓN de 23 de septiembre de 2008, del Viceconsejero de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, por la que se adjudican los Premios a las Buenas Prácticas en aulas y talleres de Formación Profesional al profesorado que potencie en el alumnado actitudes y valores ligados al buen hacer y a la mejora continua, e incentive la práctica docente mediante la utilización de los sistemas multimedia, correspondientes al año 2008, al amparo del Decreto 78/2008, de 6 de mayo, BOPV de 16 de mayo de 2008.

El Decreto 78/2008, de 6 de mayo, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación por el que se regulan los Premios a las Buenas Prácticas en aulas y talleres de Formación Profesional, establece en su artículo 7 apartado 6 que la convocatoria será resuelta por el Viceconsejero de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, siendo publicada en el BOPV.

En su virtud

RESUELVO:

1.– Adjudicar según lo previsto en el artículo 7 del Decreto 78/2008, de 6 de mayo, los premios a las Buenas Prácticas en aulas y talleres de Formación Profesional, en su edición 2008.

2.– Publicar la relación de candidaturas ganadoras de los premios a las Buenas Prácticas en aulas y talleres de Formación Profesional, por modalidad elegida según artículo 1.2 del Decreto, que se relacionan en el anexo I.

PAPER BIRZIKLATUA %100 PAPEL RECICLADO 100%

3.– Sarituei modalitateka sari hauek dagozkie:

Lehenengo sariak: bisita antolatu bat Europako eskualde batean esperientzia berritzaile bat ezagutzeko. Saria, gehienez ere, 2.500 eurokoa izango da, saritutako hautagaiko.

Bigarren sariak: ordenagailu eramangarria saritutako hautagaiko, gehienez ere 1.250 eurokoa.

4.– Aipamen berezia egitea II. eranskinean azaltzen diren Lanbide Heziketako ikastetxeko irakasleei, bertan adierazten diren arrazoiak direla eta.

5.– Hutsik deklaratzea lehenengo sarietatik hiru: bi dekretuko 1. aukerakoak dira eta beste bat, 2. aukerakoa. Izan ere, erabaki da aurkeztutako hautagaiak ez direla heltzen eskatutako mailara.

6.– Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzako web orrian argitaratzea hautagai sarituak.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta beraren kontra gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hilabeteko epean.

***Bigarrena.***– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 23a.

Lanbide Heziketa eta
Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea,
IŃAKI MUJIKA AIZPURUA.

I. ERANSKINA

1. aukeratik (1.2.1 artikulua)

a) Ikasketa autonomoan eta lankidetza-ikasketan oinarritutako portaera eta jarrerekin erlazionatutako gaitasunak bereganatzeko ikasleak ikasteko jarduerak.

Bigarren saria, gehienez ere 1.250 eurokoa saritutako hautagaiko.

– «EPEA Proiektua» hautagaiari; IEFPS Armeria Eskola GLHBIko Nicolás Morillo Urionabarrenetxeak, Iñaki Urbieta Arabiorrutiak eta Aitor Zabala Arangurenek aurkeztu du.

3.– A cada uno de las candidaturas ganadoras, en las correspondientes modalidades, les corresponden los siguientes premios:

Primeros premios: una visita organizada para conocer una experiencia innovadora en una región europea, por un importe máximo de 2.500 euros por candidatura premiada.

Segundos premios: ordenador portátil, por un importe máximo de 1.250 euros por candidatura premiada.

4.– Realizar una mención especial a las candidaturas presentadas por el profesorado de los centros de Formación Profesional que se relacionan en el anexo II, por los motivos que se señalan.

5.– Declarar desiertos tres primeros premios: dos por la opción 1 y uno por la opción 2 del Decreto, por considerar que las candidaturas presentadas no llegan al nivel requerido.

6.– Publicar las candidaturas ganadoras en la página web de la Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir de su publicación en el BOPV.

***Segunda.***– La presente Resolución entrará en vigor a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de septiembre de 2008.

El Viceconsejero de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente,
IŃAKI MUJIKA AIZPURUA.

ANEXO I

Por la opción 1 (artículo 1.2.1)

a) Actividades de aprendizaje del alumnado orientadas a la adquisición de competencias relacionadas con comportamientos y actitudes basadas en el aprendizaje autónomo y colaborativo.

Segundo premio importe máximo de 1.250 euros por candidatura premiada.

– A la candidatura «Proyecto EPEA» presentada por Nicolás Morillo Urionabarrenetxea, Iñaki Urbieta Arabiorrutia y Aitor Zabala Aranguren, del IEFPS Armeria Eskola GLHBI.

– «Ziklo-amaierako proiektua» hautagaiari; Bergarako IEFPS Miguel Altuna GLHBIko Santiago Barreña San Juanek eta Alberto Bolinaga Alegríak aurkeztu du.

2. aukeratik (1.2.2 artikulua)

b) Informazioaren eta komunikazioaren teknología berriak (IKTak) erabiltzea eta ikasketa-metodo eta –prozesuak eguneratzean horiek aplikatzea.

Lehenengo saria, gehienez ere 2.500 eurokoa, saritutako hautagaiko.

– «Eginez ikasi» hautagaiari; Politeknika Ikastegia Txorierri S. Coop.eko Josu Orbe Benguriak aurkeztu du.

Bigarren saria, gehienez ere 1.250 eurokoa, saritutako hautagaiko.

– «Ikasteko eta irakasteko prozesuan tresna multimediak sartzea» hautagaiari; Errenteriako IEFPS Don Bosco GLHBIko Juan Carlos Lizarbe de Luisek aurkeztu du.

– «Ikasteko ingurune birtualetan trebatzea» hautagaiari; Vitoria-Gasteizko Diocesanasko Enrique Corres Pérez de Arriluceak aurkeztu du.

II. ERANSKINA

☐ Aipamen berezia Praktika onetarako teknologia berritzeari:

– «Maristak learning system» hautagaiari, Daniel Irazola Atxa; Durangoko San José Maristak aurkeztu du.

– «Proiektuetan oinarritutako heziketa-eredu berria»; Elgoibarko Makina-Erremintako Institutuak aurkeztu du.

– «Moodle Goi-mailako heziketa-zikloetan» hautagaiari; Andoaingo La Salle Berrozpe Félix Elejoste, Josefa Fernández, Inmaculada Castreño eta Mikel Aguirrek aurkeztu dute.

☐ Aipamen berezia praktika onetarako ikastetxe desberdinetako ikasleen arteko lankidetza garatzeari:

«La Salle Mekanizadoak» hautagaiari; Irungo La Salleko M.ª Eugenia Bermejo Gonzálezek aurkeztu du.

☐ Aipamen berezia Praktika onetarako lankidetza-plataformak erabiltzeari:

«Errealitate eleanitza Dietetikan eta Nutrizioan: eleaniztasunaren garrantzia eta talde-lana sustatzeko praktika bat» hautagaiari; Arangoya Ikastetxeko Lucila Larraga Zorrillak aurkeztu du.

– A la candidatura «Proyecto fin de Ciclo» presentada por Santiago Barreña San Juan y Alberto Bolinaga Alegría del IEFPS Miguel Altuna GLHBI de Bergara.

Por la opción 2 (artículo 1.2.2)

b) Utilización de las nuevas tecnologías de la información y comunicación (TICs) y su aplicación en la actualización de los métodos y en los procesos de aprendizaje.

Primer premio importe máximo de 2.500 euros por candidatura premiada.

– A la candidatura «Aprender Haciendo» presentada por Josu Orbe Benguria, de Politeknika Ikastegia Txorierri, S. Coop.

Segundo premio importe máximo de 1.250 euros por candidatura premiada.

– A la candidatura «Incorporación de herramienta multimedia en el proceso de enseñanza-aprendizaje» presentada por Juan Carlos Lizarbe De Luis del IEFPS Don Bosco GLHBI de Errenteria.

– A la candidatura «Familiarización con entornos virtuales de aprendizaje» presentada por Enrique Corres Pérez de Arrilucea, de Diocesanas de Vitoria-Gasteiz.

ANEXO II

☐ Mención especial a la innovación tecnológica para las buenas prácticas:

– A La candidatura «Maristak learning system» presentada por Daniel Irazola Atxa, de San José Maristak de Durango.

– A la candidatura «Nuevo modelo formativo basado en proyectos», presentada por Juan Ignacio Irizar, del IMH de Elgoibar.

– A la candidatura «Moodle en los Ciclos Formativos de Grado Superior» presentada por Félix Elejoste, Josefa Fernández, Inmaculada Castreño y Mikel Aguirre, de La Salle Berrozpe de Andoain.

☐ Mención especial al desarrollo del trabajo colaborativo entre alumnos y alumnas de diferentes centros, para las buenas prácticas:

A la candidatura «La Salle Mekanizadoak» presentada por M.ª Eugenia Bermejo González, de Irungo La Salle.

☐ Mención especial a la utilización de plataformas colaborativas, para las buenas prácticas:

A la candidatura «Realidad multilingüe en Dietética y Nutrición: una práctica para fomentar la importancia del plurilingüismo y el trabajo en equipo», presentada por Lucila Larraga Zorrilla, del Centro Educativo Arangoya Ikastetxea.